

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

#### **Gasteizen jarduera ekintzaileak sustatzeko dirulaguntzen udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak. "Ekintzaileentzako beka" du izena programa horrek**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko abenduaren 28ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehazten dira ezarritako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; besteak beste, Enpresen Udal Zerbitzuan, 24. ildoak, "ekintzaileentzako beka" izenekoa. 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn —19. zk.— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

2019ko martxoaren 8an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizen jarduera ekintzaileak sustatzeko dirulaguntzen udal programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak. "Ekintzaileentzako beka" du izena programa horrek. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrak jakinaren gainean egon daitezten:

#### **1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak**

Ekintzaileentzako beka.

#### **2. oinarria. Deialdiaren xedea**

Beren enpresa-proiektua garatzen ari diren ekintzaileei laguntzeko eta ekintzaileen kultura sustatzeko —elkarren arteko lehia baliatuz— laguntza ekonomikoak emateko baliatuko diren arauak biltzea da oinarri hauen xedea. Enpresa-proiektu horiek irabazi asmoa izateaz gain, gizarte- eta ingurumen-helburuak ere izan beharko dituzte.

Deialdia honen helburua Gasteizen martxan jartzen diren ekimen ekintzaileen biziraute-tasa hobetzea da, bai eta gizarte- eta ingurumen-ehunean eragin positiboa izango duten proiektuen sorrera bultzatzea ere.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek. Beka emateak eta jasotzeak ez du berekin ekarriko bekadunaren eta enpresa-proiektua bideratzen deneko erakunde edo zentroaren arteko inolako lan-loturarik, ezta haren eta Udalaren artekorik ere.

#### **3. oinarria. Onuradunen betekizunak**

Honako hauek bete beharko dituzte onuradunek eskabidea aurkezten duten egunean:

- Adinez nagusia izatea.
- Gasteizen erroldatuta egotea.
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.
- Gasteizko udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda ez egotea, eta norberaren kabuz ekonomia jarduera bat gauzatzen ez aritzea. Garatze-fasean dauden proiektuak baino ezingo dira aurkeztu, deialdiaren helburua ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita.
- Aurreko urteetan beka-onuradun ez izana.

#### 4. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2019ko udal aurrekontuetako 08.21.4331.489.49 partidaren kontura —“Enpresak sortzeko laguntzak” — finantzatuko dira deialdi honetan jasotako dirulaguntzak. 70.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura.

5. oinarrian adierazitako lehen epearen barruan aurkeztutako eskabideek 35.000,00 euroko aurrekontua izango dute eskuragarri; bigarren epean aurkeztutakoek beste horrenbeste (35.000,00 euro).

Lehen epeko eskabideak ebatzi eta dirulaguntzak ematen direlarik, baldin eta zegoen aurrekontu osoa agortu ez bada, baliatu gabeko diru-kopurua bigarren epekoari gehituko zaio —berariaz utziko da hala jasota hautatze eta jarraipen batzordearen aktan—.

#### 5. oinarria. Indarrean sartzea eta eskabideak aurkezteko epea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldeztatik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdi honek bi epe izango ditu eskabideak aurkezteko:

- Lehen epea oinarri hauek indarrean sartzen diren egunetik 2019ko ekainaren 14ra bitartekoa izango da.
- Bigarrena, 2019ko ekainaren 15etik irailaren 30era artekoa.

#### 6. oinarria. Prozedura

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkeztu diren proiektuen arteko alderaketa egingo da. Eskabideak aztertu ostean, organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena igorriko dio organo eskudunari, berariaz azalduta eskatutako laguntzak eman diren edo ez, eta, kasuan kasu, zentzuzkoa adierazita.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua.

Orobat, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko teknikarien artean tutoretzaren arduraduna izendatuko du batzordeak. Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira “ekintzaileentzako beka”, batzorde teknikoaren proposamenaren ildotik. Hala ere, Tokiko Gobernu Batzarrak Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahalko dio ebazteko eskumena.

#### 7. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebaztuko da. Epe hori oinarri hauek indarrean jartzen direnetik kontatuko da eskabideen lehen eperako; bigarreneko, eskabideak aurkezteko epea.

#### 8. oinarria. Balioespen-irizpideak

- Jardueraren nahiz enpresa-kudeaketaren inguruko prestakuntza teknikoa: 15 puntu arte.
- Jardueraren inguruko esperientzia profesionala eta sustatzailea proiektuan zenbateraino murgildua dagoen: 15 puntu arte.
- Proiektuaren zehaztasuna, argitasuna eta kalitatea: 15 puntu arte.
- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa: 15 puntu arte.
- Lan-planaren zehaztasuna, koherentzia eta edukiak: 10 puntu arte.
- Interes-maila, ekonomi sustapenari dagokionez, kontuan harturik proiektuaren berrikuntza-maila, hastapenetan diren jarduera ekonomikoak, sormen-industriak, ekonomia soziala eta aurreikusten den enplegu-sorkuntza: 30 puntu arte.

**9. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntza kalkulatzea**

Ekintzaile baten ekimenak beka jasotzerik izan dezan, gutxienez 65 puntu lortu beharko ditu, 100eko puntuaziotik.

Bekaren gehieneko zenbatekoa 2.500,00 eurokoa da eskatzaile bakoitzeko. 90 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabideei 2.500,00 euro esleituko zaizkie. Gutxienerako puntuazioa —65 puntu— lortzen dutenek 1.000,00 euro eskuratuko dituzte. 66 puntutik 89ra bitartean lortzen dituzten proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie, bekaren kopurua kalkulatzeko. Dagoen kreditua nahikoa ez bada, murrizketa proportzionala aplikatuko zaie proiektu guztiei, 65 puntu edo gehiago lortu dituzten eskabide guztiei erantzute aldera.

**10. oinarria. Ordaintzeko modua**

Bi zatitan ordainduko da beka: emandako kopuruaren ehuneko 50 aldeko ebazpena ematen denean, eta bigarrena, berriz, 13. oinarrian adierazten den oroitidazkia aurkeztu ondoren.

**11. oinarria. Nahitaezko agiriak**

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena (I. eranskina).
- Nortasun agiriaren kopia.
- Enpresa-proiektua (orientatzeko eredu II. eranskinean).
- Lan-plana, non programatutako jarduerak, lortu nahi diren helburuak eta egutegia zehaztu beharko baitira (III. eranskina).
- Ekintzaileei laguntzen esperientzia duen erakunderen batek proiektua bideratu bitartean tutoretza-lanak egiteko konpromisoa bere gain hartzen badu, konpromiso hori adierazten duen agiria, eta aurreikusitako tutoretza-lanen programa.

Enpresa-proiektuak aurkezten ez badira ez da eskabidea onartuko.

**12. oinarria. Akatsak zuzentzea**

Beka eskabideek ez badituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 66. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen, edo nortasun-agiria zein deialdi honen 11. oinarrian adierazitako lan-plana eransten ez bazaizkie, eskatzaileei 10 eguneko epea emango zaie akatsak konpondu edo falta diren nahitaezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera utzitzat joko dela.

**13. oinarria. Onuradunen betebeharrak**

Betebehar hauek izango dituzte beka jasotzen dutenek:

- Burututako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen oroitidazki sinatua aurkeztea (IV. eranskina), beka eskabidean aurkeztutako lan-planaren jarraipena egiterik izan dadin. Lehen epera aurkezten diren proiektuen oroitidazkiak irailaren 13a baino lehenago aurkeztu beharko dira, eta bigarren epera aurkezten direnenak, berriz, abenduaren 20a baino lehenago.
- Beka emateko oinarri izan den jarduera-programa —lan-planean adierazitakoa— gauzatzea, enpresa sorkuntzaren eta kudeaketaren alorreko prestakuntza jarduerak barne.
- Udalak emandako bekaren inguruan egiten dituen egiaztatze jardueren menpe jartzea.
- Helburu bera duen beste bekaren bat eskatu nahiz eskuratuz gero, lan-kontraturen bat lortuz gero nahiz beka emateko orduan aintzat hartutako edozein egitate edo zirkunstantzia aldatuz gero, jakitera ematea.

**14. oinarria. Bateriaezintasuna**

Oinarri hauetan xedatutako laguntzak ez dira bateragarri izango beste edozein erakunde publikok helburu berarekin ematen dituenekin.

**15. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua**

Deialdi honen xede diren ekintzak garatzean izaera pertsonaleko datuak babesteko araudian xedatutakoa beteko da une oro.

**16. oinarria. Europako Gizarte Funtsaren finantziazioa**

Partez —ehuneko 50an— Europako Gizarte Funtsak finantzatuta daude laguntza hauek, Euskadi 2014-2020ko programa eragileko “Emprende Local 20” izeneko proiektuaren baitan. Finantzaketa hori jasotzeak berekin dakar pertsona onuradunen zerrendan agertzeko onespena ematea, 1828/2006 Araudiaren 6. artikuluan aurreikusten denaren ildotik.

**17. oinarria. Publizitatea**

Udalaren webgunean argitaratuko dira ematen diren dirulaguntza eta laguntzak —[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)—, zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak zehaztuta —DBLOeko irizpideak kontuan harturik—, hala xedatzen baita Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen II. kapituluko 8. c) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen II. kapituluko 55. i) artikuluan.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 14an

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
*LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*

**I. eranskina**  
**Eskabide-orria**

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/96/52/59652.pdf>

**II. eranskina**  
**Enpresa-proiektua (orientatzeko eredia)****1. Proiektuaren aurrekariak**

Ideiaen sorrera eta bilakaera.

Proiektua zein maila edo fasetan dagoen. Bideratutako ekintzak.

**2. Talde sustatzailea**

Curriculum vitae zehatza. Ezagupen teknikoak zehaztu, baita enpresa kudeaketaren alorrekoak ere. Sustatzaileak proiektuan zenbateraino murgilduta dauden azaldu.

**3. Negozioaren egokitasunaren ebaluazioa**

Produktu edo zerbitzuaren deskribapena. Alderdi berritzaileak.

Merkatuari buruzko ezagupenak.

Sektorearen egoera eta joerak.

Izan litezkeen bezeroen ezaugarriak.

Konkurrentziaren ezaugarriak. Abantailak eta desabantailak, lehiakideen aldean.

Proiektuaren puntu sendoen eta izan ditzakeen ahuluneen balioespena.

#### **4. Ekonomia eta finantza plana**

Aurreikusitako inbertsioen balioespena.

Finantzaketa-iturriak.

Diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena. Errentagarritasun atalasearen kalkulua.

#### **5. Ondorioak**

### **III. eranskina Lan-plana**

#### **1. Eskabidea aurkeztu aurreko jardueren zerrenda**

#### **2. Aurreikusten den hileko jarduera-egutegia, honela banatuta:**

- prestakuntza-ekintzak.
- aholkularitza.
- jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea.
- produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketing-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.
- hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzearekin lotutako jarduerak.
- bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- legezko izapideak betetzeko jarduerak.
- enpresa abian jartzeko aurreikusitako bestelako jarduerak.

#### **3. Enpresa abian jartzea aurreikusten den data**

### **IV. eranskina Oroitidazkia**

#### **1. Gauzatutako jarduerak, sailkapen honen arabera antolatuta:**

- gauzatutako prestakuntza-ekintzak.
- jasotako aholkularitza.
- jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea.
- produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketing-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.
- hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzearekin lotutako jarduerak.

– bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.

– legezko izapideak betetzeko egindako jarduerak.

– enpresa abian jartzeko egindako beste jarduera batzuk.

**2. Lan-planean aurreikusitako jarduerekin erkatzea. Lan-planean aurreikusitako jardueren betetze-maila azaltzea**

**3. Emaitzak. Aurreikusitako helburuak bete al diren eta enpresa osatu al den azaltzea**

**4. Prozesuko oztopo eta zailtasunak**

**5. Proiektuaren perspektibak**

**6. Harremanetarako datuak**

Eguna eta sinadura: